

Mondragon Unibertsitateak diplomak emango dizkie Ingeniaritza Teknikoko 269 ikasleei

2007/04/02

Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoak, bihar, ostirala, diplomak emango dizkie 2005/2006 promozioan Ingeniaritza Teknikoko espezialitate ezberdinetan titulua lortu duten 269 ikasleei. Ikasle horiek Ingeniaritza Teknikoan egindako espezialitateak hauek dira: Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoa; Industria-elektronikako Ingeniaritza Teknikoa; Sistemen Informatikako Ingeniaritza Teknikoa; Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoa; Telekomunikazioetako Ingeniaritza Teknikoa, Telekomunikazio-sistemak espezialitatea eta Telematika.

Bihar, ostirala, martxoak 30, arratsaldeko 18:00etan izango da diplomak emateko ekitaldia, Arrasateko Amaia Antzokian. Ekitaldi akademikoa Goi Eskola Politeknikoko dekanok, Vicente Atxak, inauguratuko du, eta, ekitaldia ixteaz, Mondragon Unibertsitateko errektorea, Iosu Zabala, arduratuko da. Diplomak emateko ekitaldiaren barnean, Andoni Egaña bertsolariak 'Anbizioaren neurriak' izeneko hitzaldia emango du.

Titulazioen gaineko analisia

Guztira, 269 ikaslek jasoko dute bihar Ingeniaritza Teknikoan lortutako titulua, titulazioko ikasketak gainditu ondoren. Sexuaren arabera, ikasle guztien %15,42 emakumezkoek osatzen dute. Hain zuzen ere, emakume gehien Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikoan matrikulatu da, eta, ondoren, oso gertu, Industria Diseinuko Ingeniaritza Teknikoa dago. Hizkuntzari dagokionez, ikasleen %65ak gazteleraz egin ditu ikasketak; gainerako %35ak, berriz, euskaraz.

Karrerak aztertzen baditugu, iazko urteko promozioiko titulatu gehienak Mekanikako Industria Ingeniaritza Teknikokoak dira; hots, 110 ikaslek lortu dute diploma. Ondoren, Industria Elektronikako Ingeniaritza Teknikoa da ikasle gehien bildu duena; guztira, 49 ikasle izan dira.

Titulazio horiek lortze aldera, ikasle guztiek Karrera Amaierako urtebete inguruko Proiektua egin dute, honako enpresa hauen lankidetzarekin: Aeralia, CIE Legazia, Danona, Ecotecnia, Eroski, Ulma Manutención, Fagor Arrasate, Fagor Etxetresna Elektrikoak, Ikerlan, Orona eta Mondragon Sistemas de Información.

Gainera, azpimarratu behar da, titulazioa lortu eta gero, hiru hilabete baino lehen, ikasleen %99 lanean hasten dela.